

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOAREN EGOKITZAPENA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoaren egokitzapena
Adaptación de la Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4. Maila
irakasgaia: <i>materia:</i>	MATEMATIKA		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	ZIENTZIAK		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	KONPETENTZIA MATEMATIKOA		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	AINTZANE MENDIOLA, LANDER SARRIONANDIA- IBARRA eta BEGOÑA PUENTES	ikasturtea: <i>curso:</i>	2019-2020

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Banaka edo taldean, eguneroko bizitzatik ateratako problemak, beste zientzia batzuetakoak edo Matematikakoak planteatzea eta ebaztea, eta zenbait estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen-prozesua justifikatzea, emaitzak interpretatzea eta egoera berrietan aplikatzea, gizarte-ingurunean modu eraginkorragoan jardun ahal izateko.	1. Zenbaki motak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea informazioa bildu, eraldatu eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzarekin nahiz arlo zientifikoarekin lotutako problemak ebazteko. 1.1. Ea sailkatzen dituen zenbaki motak eta behar bezala erabiltzen dituen informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko. 1.2. Ea ezagutzen eta erabiltzen dituen hainbat idazkera tarteak eta horien adierazpen grafikoa emateko.

2. Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.

3. Natura- eta kultura-inguruneko forma geometrikoak identifikatzea, elementuen, erlazioen eta propietateen ezagutza erabiliz, errealitatea deskribatzeko, eta ezagutza geometrikoak aplikatzea inguruan dugun mundu fisikoa ulertzeko eta analizatzeko, eta hari buruzko problemak ebazteko.

- 1.3. Ea berreketa mota guztiekin egiten dituen kalkuluak, propietate egokiak aplikatuta.
- 1.4. Ea erlazionatzen dituen berreketak eta erroketak.
- 1.5. Ea interpretatzen eta sinplifikatzen dituen erroak.
- 1.6. Ea arrazionalizatzen dituen izendatzaileak.
- 1.7. Ea egiten dituen eragiketak idazkera zientifikoan emandako kantitateekin.
- 1.8. Ea erabiltzen duen kalkulagailua idazkera zientifikoan emandako kantitateak idatzi eta eragiketak egiteko .
- 1.9. Ea idazkera zientifikoa erabiltzen duen testuinguruari hala dagokionean.

2. Hizkuntza aljebraikoa eta eragiketa eta propietate aljebraikoak behar bezala erabiltzea, matematika-erlazioak adierazteko.

- 2.1. Ea eragiketarik egiten duen berdintza aljebraikoekin, haien propietateak erabilia.
- 2.2 Ea eragiketarik egiten duen polinomioekin (batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak) eta ea erabiltzen duen Ruffiniren erregela egoki denean.
- 2.3 Ea lortzen dituen polinomio baten erroak eta ea faktorizatzen dituen, metodo egokiena erabilia.
- 2.4. Ea sinplifikatzen dituen zatiki aljebraikoak
- 2.5. Ea egiten dituen zatiki aljebraikoen eragiketak.

3. Hainbat motatako ekuazioak, inekuazioak eta sistema aljebraikoak planteatu eta ebatzi beharreko eguneroko bizimoduko eta zientzien beren esparruko problemak ebaztea, ebazpen-algoritmoak trebetasunez aplikatuz.

- 3.1.- Ea planteatzen eta ebazten dituen lehen eta bigarren mailako ekuazioak (ekuazio birkarratuak, ekuazio erroak eta ezezaguna izendatzailean duten ekuazioak barne) eta baita lehen mailako inekuazioak ere, aljebra sinbolikoa erabilia eta algoritmo egokienak aplikatuta.
- 3.2.- Ea planteatzen eta ebazten dituen lehen eta bigarren mailako ekuazio-sistemak eta

4. Kalkuluak eta iritzirako kalkuluak (zenbakizkoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzean prozedura egokienak (buruzko kalkulia, idatzia, kalkulagailua...) erabiliz, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, eta emaitzak sistematikoki berrikustea.

5. Beren adinerako egokiak diren eta emaitzak eta ondorioak argi eta garbi eta koherentziaz justifikatzeko eta aurkezteko norberaren pentsamendua adieraztea errazten duten hizkuntza arrunteko eta hizkuntza matematikoko elementuak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak) erabiliz, arrazoitzea eta argudiatzea.

lehen mailako inekuazioak, aljebra sinbolikoa erabilia eta algoritmo egokienak aplikatuta.
3.3.- Ea problemen enuntziatuak hizkuntza aljebraikoan adierazten dituen eta lortutako emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen dituen, eta haien egokitasuna balioesten duen.

4. Magnitudeak kalkulatzeko, neurketa zuzenak eta zeharkakoak eginez, benetako egoerak oinarri hartuta, tresna, teknika edo formula (trigonometrikoak barne) egokienak erabiliz, eta deskribatutako egoerarako egokiena den neurri-unitatea erabiliz.

- 4.1.- Ea identifikatzen dituen antzeko irudiak, eta ea kalkulatzeko duen haien arteko antzekotasun-arrazoia.
- 4.2.- Ea Pitagorasen teorema aplikatzen duen zeharkako neurketak kalkulatzeko.
- 4.3.- Ea definitzen dituen angelu baten arrazoi trigonometrikoak, lortzen dituen grafikoki (zuzenkiak triangelu zuzen baten gainean neurtuta) eta koadrante goniometrikoaren gainean.
- 4.4.- Ea lortzen duen angelu zorrotz baten arrazoi trigonometriko bat beste arrazoi batetik abiatuta, oinarriko erlazioak ezarrita.
- 4.5.- Ea ebazten dituen triangelu zuzenak.
- 4.6.- Ea ebazten dituen triangelu angelukamutsak altueraren estrategia erabilia.
- 4.7.- Ea ebazten dituen neurrien problemak, oinarriko trigonometria-kontzeptuak eta -erlazioak erabilia.

5. Informazio jakin bat analizatzea, benetako egoerekin lotutako erlazio funtzio-nalak adierazten dituzten taulak eta grafikoak oinarri hartuta, eta haien portaerari, bilakaerari eta izan ditzaketen azken emaitzei buruzko informazioa lortzea.

- 5.1.- Ea interpretatzen dituen, kritikoki, zenbait egoera errealarri buruzko tauletako eta grafikoetako datuak.
- 5.2.- Ea taulen eta grafikoen bidez adierazten dituen datuak, ardatz edota ordenagailua eta unitate egokiak erabilia.
- 5.3.- Ea deskribatzen dituen grafiko batetik ondorioztatzen diren ezaugarri

6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) behar bezala erabiltzea kalkuluak egiteko, denetario informazioak bilatzeko, tratatzeko eta adierazteko, bai eta Matematika ikasten laguntzeko ere.

7. Matematika kulturaren parte dela balioestea, hura erabiliz gozatzea, Matematikako jardueraren moduen eta jarreraren balioa bereiztea, eta eskuratutako Matematikako konpetentziak aplikatzea, zenbait fenomeno sozial analizatzeko eta balioesteko; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna edo bizikidetzak baketsua.

garrantzitsuenak (hazkundera, maximo eta minimoak, joera eta periodikotasuna)
5.4.- Ea aztertzen dituen funtzio baten gorakortasuna eta beherakortasuna, batez besteko aldakuntza-tasa erabilita.
5.5.- Ea gai den adibide errazetako balio-taulak eta horiei dagozkien grafikoak lotzeko, eta ea erlazioa arrazoitzen duen.

6. Egoera baten erlazio kuantitatiboak identifikatzea eta haiek adierazteko dauden funtzio motak zehaztea.

6.1.- Ea identifikatzen eta azaltzen dituen erlazio funtzional baten bidez deskriba daitezkeen magnitudeen arteko erlazioak, eta ea lotzen dituen grafikoak eta haiei dagozkien adierazpen aljebraikoak.

6.2.- Ea bi magnitudeen arteko erlazio-eredua azaltzen duen eta grafikoki adierazten duen, erlazioa lineala, koadratikoa, alderantziz proportzionala edota esponenziala den kontuan hartuta; horretarako, ea erabiltzen duen informazio-teknologiaren bidez lortutako adibiderik.

6.3.- Ea antzematen, estimatzen edo kalkulatzeko dituen funtzio horien parametro bereizgarriak.

6.4.- Ea zentzuz azaltzen dituen aztertutako fenomenoari buruzko ondorioak grafiko baten joera edo taula baten balioak abiapuntu hartuta.

7. Problema ebaztea eredu heuristikoko bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estra-egia egokiak aukeratuz (zenbaketa zehatza, indukzioa, antzeko problema bila-tzea, amaieratik hasia, absurdora eramatea, problema ebaztea imajinatzea, kontraadibideak, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpe-nean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.

7.1.- Ea ebazten dituen problema eredu heuristikoko bat erabiliz.
7.2.- Ea argitzen dituen prozesuen eta emaitzen arrazoibideak, eta ea azaltzen dituen bere adinari dagokion zehaztasunez.

	<p>8. Jarduera matematikoarekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, norberaren ahalmenetan konfiantza eta iraunkortasuna izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lantaldean integratzea, besteen iritziak ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.</p> <p>8.1.-Ea dakien matematika-eragiketak eta -prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak.</p> <p>8.2.- Ea interesik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean.</p> <p>8.3.- Ea emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen..</p> <p>8.4.- Ea hartzen duen parte eginkizun-banaketan talde-lanean ari denean.</p> <p>8.5.- Ea proposatzen duen egiteko beste modurik, eta ea balioesten duen hobetzeko aukeratzat taldean eztabaidatzea eta iritziak elkarri jakinaraztea.</p>
--	---

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

UNITATE DIDAKTIKOA- ARAZO EGOERA: (TRIGONOMETRIA. TALDE LANA, eta IKTak ERABILITA)

Helburua: Ikastetxeko jolastokian dagoen **zuhaitz nabarmenenaren altuera** eta **ikastetxearen altuera** bera neurtzea. Horretarako, taldeak osatu ondoren, egin beharreko lanak:

1. Aztertu arazo-egoerari aurre egiteko dauden prozedurak eta erabaki bat taldekideen artean.
2. Zehaztu zein baliabide erabiliko duzun (erregela, ispilua, klinometroa...) eta zergatik.
3. Planifikatu zer neurri hartu behar duzun. Horretarako egoeraren krokisa marraztu.
4. Egin beharrezko neurriak eta krokisean adierazi.
5. Egin beharrezko kalkuluak altuerak lortzeko.

6. Egin txosten bat jarraitutako prozedura, egindako kalkuluak eta lortutako emaitzak azalduz.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

EDUKIN KOMUNAK

a) Zehar konpetentziekin lotutakoak: PROZEDURAK ETA JARRERAK

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea, balioestea, ulertzea, azaltzea
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea, ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea
- Gatazkak kudeatzea
- Norberaren emozioak, motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea
- Pertseberantzia eta malgutasuna lantzea.

b) Ikasgaiarekin lotutakoak: PROBLEMEN EBAZPENEA

- Problema ebazteko metodo orokorrak
- Problema ebazteko heuristiko ohikoenak: proba/errorea, problema errazago bat ebaztea, problema bera problema txikiagotan zatitzea, problema berriz formulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa zehatza, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problema ebaztea.
- Problema ebazteko erabilitako prozesua ahoz **adieraztea**. Prozesua **justifikatzea** eta emaitzak egiaztatzea.
- Problemen soluzioa bilatzen **saiatua** eta **malgua** izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, Matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte arazo batzuk aztertzea, Matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (matematika-laguntzaileak) erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkuluak, kalkulu aljebraikoak edota grafikoak egiteko.

- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.

1.EBALUAZIOA

ARITMETIKA

1. Unitatea

ZENBAKI ERREALAK. EHUNEKOAK

- Zenbaki errealen multzoaren definizioa.
- Zenbaki bat zein multzotako den identifikatzea eta zehatz edo modu hurbilduan adieraztea \mathbb{R} gainean.
- Tarteak eta zuzenerdiak. Nomenklatura.
- Tarteen bildura eta ebakidura kalkulatzeko.
- Ehunekoak. Ehuneko kateatuen problemak ebaztea.

2. Unitatea

BERREKETAK ETA ERROKETAK

- Berretzaile osoa eta zatikizkoa duten berreketen definizioa.
- Berreketen propietateak aplikazioa.
- Erroketen definizioa eta propietateak.
- Erroketen arteko eragiketa konbinatuak egitea. Arrazionalizatzea.
- Idazkera zientifikoa. Zenbakiak idazkera zientifikoa idatzi eta irakurri. Idazkera zientifikoa adierazita dauden zenbakiekin eragiketak.

ALJEBRA

3. Unitatea

POLINOMIOAK

- Polinomioak lantzeko oinarrizko terminologia.
- Eragiketak polinomioekin: batuketa, kenketa, biderketa, berreketa (biderkadura nabarmenak) eta zatiketa.
- Polinomio batetik biderkagai komuna ateratzea.
- Ruffiniren erregela erabiltzea polinomio bat $x - a$ binomioarekin zatitzeko eta polinomio baten balioa kalkulatzeko $x - k$ a balio duenean.
- Hondarraren teorema ezagutzea eta aplikatzea.
- Polinomio baten erroak kalkulatzeko. Polinomio bat faktorizatzea.
- Zatiki aljebraikoen eragiketak egitea.

2.EBALUAZIOA

4.Unitatea

EKUAZIOAK ETA INEKUAZIOAK

- Ekuazioak. Elementuak. Ekuazio baten soluzioa.
- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak identifikatzea eta ebaztea.
- Beste ekuazio mota batzuk identifikatzea eta ebaztea: ekuazio birkarratuak, arrazionalak, irrazionalak eta faktORIZAZIO bidez ebazti beharrekoak.
- Inekuazioak. Definizioa , soluzioak eta propietateak.
- Ezezagun bateko lehen eta bigarren mailako inekuazioak ebaztea.
- PROBLEMAK ekuazio eta inekuazioen bidez ebaztea.

5.Unitatea

EKUAZIO- ETA INEKUAZIO- SISTEMAK

- Ekuazio linealen sistemak. Ekuazio-sistemen sailkapena. Ekuazio-sistema baten soluzio kopurua grafikoki adieraztea.
- Ekuazio-sistemak ebazteko metodoak (Ordezkatze- , Berdintze- eta Laburtze- metodoak).
- Ekuazio ez linealen sistemak. Definizioa, motak eta ebazteko metodoak.
- Ezezagun bateko inekuazio-sistemak. Definizioa eta ebazteko prozedura.
- PROBLEMAK ekuazio linealen eta ez-linealen sistemen bidez ebaztea.

GEOMETRIA

6.Unitatea

TRIGONOMETRIA

- Angelu zorrotz baten arrazoi trigonometrikoak: sinu, kosinu eta tangentearen definizioak.
- Triangelu zuzen bateko angelu zorrotzaren arrazoi trigonometrikoak grafikoki kalkulatu.
- Edozein angeluren arrazoi trigonometrikoak. Zirkunferentzia goniometrikoa.
- Angelu beraren arrazoi trigonometrikoen arteko erlazioa (oinarrizko erlazioak).
- Angelu ohikoenen arrazoi trigonometrikoak (30° , 45° eta 60°).
- Oinarrizko erlazioak erabiliz, angelu baten arrazoi trigonometrikoetako batetik abiatuta beste biak kalkulatzeko.
- Angelu baten arrazoi trigonometrikoak algoritmoen bidez edo kalkulagailu zientifikoa erabilita lortu.
- Triangelu angeluzuzenak ebaztea.
- Altueraren estrategia erabiltzea angelu zuzenak ez diren triangeluak ebazteko.
- PROBLEMAK trigonometriá erabiliz ebaztea.

3. Ebaluazioa EGOKITZAPENA

Egungo egoera dela eta, ebaluazioaren gutxieneko helburuak eta edukiak moldatu ditugu eta horrelaxe landuko dira/*Debido a la situación actual los objetivos y contenidos de esta última evaluación se trabajarán de la siguiente manera:*

- Ikasturtea bukatu arte, 7. eta 8. unitateekin jarraituko dugu lanean online saioetan , (berreskuratzeko dauden ikasleekin jarraituko den prozedura, beheko oharretan adierazi dugu) / *hasta la finalización del curso seguiremos trabajando las unidades 7 y 8 en las clases online (Las recuperaciones se explican más abajo, en las observaciones)*
- Udako txostena eta iraileko errepassoa **kurtsoko gutxiengoak (3.ebaluazioarenak barne)**sendotzeko izango da. / *el dossier de verano y el repaso de septiembre servirán para consolidar los mínimos del curso.*

EDUKIEN SEKUENTZIA/secuenciación de contenidos

7.Unitatea: FUNTZIOAK

- Funtzio kontzeptua. Funtzio bat adierazteko moduak: adierazpen grafikoa, balio- taulak eta adierazpen analitikoa edo formula.
- Funtzioen adierazpen grafikoen eta analitikoen arteko erlazioa.
- Funtzio baten definizio-eremua eta ibiltartea. Funtzio baten eremua definizio-eremua grafikoki eta analitikoki kalkulatzeko.
- Funtzio baten ezaugarriak: Gorakortasuna, beherakortasuna, maximoak eta minimoak, batezbesteko aldakuntza tasa, jarraitasuna, ardatzekiko ebakidura-puntuak, simetria , joera eta periodikotasuna.
- Funtzio bat aztertzea, bereziki klimarekin erlazionatuta dauden grafikoen azterketa.

8.Unitatea: OINARRIZKO FUNTZIOAK

- Funtzio lineala. Zuzen baten malda.
- Funtzio lineal motak. Proporzionaltasun-funtzioa eta funtzio konstantea.
- Zuzen baten ekuazioa idaztea, puntu bat eta malda jakinda.
- Funtzio koadratikoak . Ezaugarriak. Adierazpen grafikoa.
- Zuzenak eta parabolak elkarrekin aztertzea.
- Funtzio arrazionalak. Definizioa, ezaugarriak eta adierapen grafikoa. Alderantzizko proporzionaltasuneko funtzioen azterketa.
- PROBLEMAK oinarrizko funtzioen bidez ebaztea.

UDAKO TXOSTENA ETA IRAILA/dossier de verano y septiembre

Urtean zehar (3.ebaluazioa barten) landutako gaiekin txosten bat prestatuko zaie gai horietako ariketak eta problemak erreparatu ahal izateko. / *Se les preparará un dossier con los temas trabajados durante el curso (3ª evaluación incluida) para poder repasar los ejercicios y problemas.*

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

BALIABIDE DIDAKTIKOAK. EGOKITZAPENA

Classroom bitartez ari gara klase ematen. Lanak normalean hor partekatzen ditugu ikasleekin. Bideo- konferentziak egiteko, Google meet edo jit.si baliabideak erabiltzen ari gara. / *Se imparten las clases en Classroom y es ahí donde se entregan las tareas normalmente. Para las vídeo-conferencias utilizamos Google meet o la aplicación jit.si*

Udako txostena eskaneatu eta Classroomen jarriko dugu. Beraiek, **koaderno** batean egingo dituzte lanak. /*Escanearemos el dossier de verano y lo pondremos en classroom. Los/as alumnos/as harán las tareas en un coaderno.*

Eskolako ikasle guztiek dute aukera online lana egiteko. Arazoren bat egonez gero aurrerago, fotokopiak bidaliko dizkiegu. *Todos/as los/as alumnos/as pueden trabajar online. En caso de haber algún problema se les darán fotocopias.*

BESTE BALIABIDE BATZUK/OTROS RECURSOS

- *Testu liburua / Libro de texto (Matematika akademikoa (Ebatzi saila) 4DBH-Zubia/Santillana argitaletxekoa)*
- *Kurtsoan zehar banatutako txostenak / Dossieres repartidos durante el curso.*
- *Klaseko classroomean dituzten materialak /materiales que tienen en el classroom de clase.*

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] **EGOKITZAPENA**

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN

[pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]. **ADAPTACIÓN**

- Online klaseetara konektatzea

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] **EGOKITZAPENA**

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación]. **ADAPTACIÓN**

-1go eta 2. ebaluazioko notak izango du pisu gehien. Horretaz gain, 3.ebaluazioko lan guztiek nota hori igotzeko erabiliko dira.

**Hala ere, 1go eta 2.ebaluazioko notan eragina izan dezake 3.ebaluazioan lan gutxi

- Testu liburuaren ariketak eta Classroomen bidalitako lanen kontrola.
- Unitate bakoitzeko online froga

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN ADAPTACIÓN

- *Conectarse a las clases online*
- *Las tareas del libro de texto y de Classroom.*
- *Prueba online de cada unidad.*

egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe.

-Berreskurapenak gainditzen duten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.

-Martxoaren 13tik aurrera:

Lanak epean entregatzea, lanen kalitatea, online frogen emaitzak eta ikaslearen jarrera eta interesa hartuko dira kontuan 1go eta 2. ebaluazioetako batzbesteko nota igotzeko edo jeisteko orduan.

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN ADAPTACIÓN

-Las notas de la 1ª y 2ª evaluación tendrán el mayor peso. El trabajo de la 3ª evaluación se tendrá en cuenta para subir nota.

No obstante, influirá en la nota final el hecho de que el/la alumno/a no haya trabajado durante la tercera evaluación o no se haya conectado a las clases sin justificación aparente.

-Las/os alumnas/os que recuperen la 2ª evaluación obtendrán 5 como calificación.

-Desde el 13 de marzo:

La entrega de tareas en el plazo fijado, la calidad de los trabajos, las notas de las pruebas online y el interés y la actitud del alumno/a serán lo que tendremos en cuenta a la hora de subir o bajar la media obtenida entre la 1ª y 2ª evaluación.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]. **EGOKITZAPENA**

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]. **ADAPTACIÓN**

1go eta 2. ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko. Beraz, hauxe izango da ikasleentzako berreskurapen sistema / *Ya que los objetivos y contenidos evaluables del curso 19-20 se han reducido a la 1ª y 2ª evaluación, el sistema de recuperación para el alumnado es el siguiente:*

1go eta 2. Ebaluazioak berreskuratzeko irizpideak: (GUTXIENGOetan oinarrituta):

a) 2. Ebaluazioaren errekerperazioa: Txosten bat emango zaie ebaluzioan zehar landutako edukiak erreperasatzeko eta on-line azterketa egingo zaie.

b) 1go ebaluazioaren errekerperazioa:

b.1) 1go ebaluazioa bakarrik dutenentzat: Txosten bat emango zaie ebaluzioan zehar landutako edukiak erreperasatzeko eta azterketa egingo zaie.

b.2) 1go eta 2. ebaluazioak dituztenentzat:

b.2.1) 2. ebaluazioa GAINDITZEN badute eta 1go ebaluazioa PENDIENTE: Txosten bat emango zaie ebaluzioan zehar landutako edukiak erreperasatzeko. Ondo eginez gero, gaindituta izango dute 1. ebaluazioa.

b.2.2) 2. ebaluazioa EZ badute GAINDITU eta 1go ebaluazioa PENDIENTE: Ekainean beste aukera bat emango zaie, azterketa "globala" egiteko (1go eta 2. ebaluazioaren minimoak)

Criteria para la recuperación de la 1ª y 2ª evaluación (basada en MÍNIMOS)

a) *Recuperación de la segunda evaluación: Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación y se les realizará un exámen on-line.*

b) *Recuperación de la 1ª evaluación:*

b.1) *Los que sólo la 1ª evaluación:*

Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación y se les realizará un exámen.

b.2) *Los que tienen la 1ª y 2ª evaluación:*

b.2.1) *Si APRUEBAN la 2ª evaluación y tienen PENDIENTE la 1ª evaluación: Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación. Si lo hacen bien, aprobarán la 1ª evaluación.*

b.2.2) Si NO han APROBADO la 2ª evaluación y tienen PENDIENTE la 1ª evaluación: Se les dará otra oportunidad en Junio para hacer un examen “global” (los mínimos de la 1ª y 2ª evaluación).

Momentuz ez dakigu aurrez aurreko azterketak egiteko aukerarik izango dugun ala ez, beraz ez dugu aukera hau baztertu ikasle batzuen egoerak horrela eskatzen badu. / De momento no sabemos si tendremos opción de realizar exámenes presenciales, por ello no descartamos la opción si la situación de algunos alumnos lo requiriera.

Ohiko deialdian gaituko ez balute, ezohiko deialdian aukera izango dute gaitzeko./ Si no aprobaran en la convocatoria ordinaria, tendrán la opción de aprobar en la extraordinaria.

OHARRAK / OBSERVACIONES

--